

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2012ko irailaren 6a. IX. urtea. 2.395. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Herritarren gehiengoak oraindik ez du BEZaren igoeraren eragina nabaritu

Beldurra eta kezka sentitzen dute, oro har, eskualdeko herritarrek, baina, euren eguneroko erosketetan, oraindik ez dute nabari BEZ zergaren igoera eman denik

Tolosako merkatarien erdiek BEZ zergaren igoera euren gain hartu eta prezioak ez igotzea erabaki dute; oinetako dendek erabaki bateratua adostu dute **02-3**



BEZa igo baino egun bat lehenago, jende ugari joan zen gasolindegietara autoaren depositua betetzera. iGL

Getaria-Tolosa traineruak Kontxako bigarren jardunaldia irabazi nahi du

Anjel Larrañaga entrenatzailea: «Joan den astean zia bogan egin genuen akats hari buelta eman eta ea galiziarrei irabazten diegun» **05**

Hirugarren saria lortu du Dani Oiarzabal anoetarrek Ordizian

Fruitu eta Barazki Lehiaketan eskuratu du **06**

Tolosako kultur
etxeko tailerretan
izena emateko
aukera, datorren
astetik **06**

'Bihotza Zaindu'
kanpaina abian
jarri du Asuncion
Klinikak argazki
lehiaketarekin **06**

Salou areto futbol taldeak Laskorainen eta Ibarraren aurka jokatuko du asteburuan

Talde kataluniarrak aurre denboraldia Tolosan egitea erabaki du; partidak Usabal kiroldegian izango dira **07**

Akademia Pausoka

HIZKUNTZAK
Inglatera (Eusko, hezkuntz, Unibertsitate, azterketak, errefortzuak...)
Alemana - Arabiera - Italiara
Itzulpenak
Irakasketako kualifikatua

ERREFORTZUA
Fisika - Matematika - Kimika - Gaztelania - Matematika - Matrikulariak - Eguneroko irratia - Tardor-bikakak

Irailen kursoa hasiera eta ondorengoak

Martin J. Iraola, 2- beheko 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
943.249.161 | 686.971.962

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com

TOLOSA
Kondeko Aldega, 5
943 - 67 00 40

VILLABONA
Larrea Polg., 34 - 1
943 - 69 48 73

Igoera oraindik gehiegi nabaritu ez arren, kezka sentitzen da gizartean

Irailero lehen egunetik BEZaren igoera indarrean dago; oinarritzko elikagaiak salbu, produktu gehienek igo dute salneurria

Tolosako komertzioen erdiek urtarrila bitartean ez dute igoera aplikatuko

Iñigo Terradillos-Eneritz Maiz

Beti esan ohi da irailero aldapa gogorra izaten dela, bada aurten-go oraindik ere gogorragoa izango da. Oporren ostean, lanari ekin behar izaten zaio. Eta lana izatea bera ere garesti den garai honetan, guzti honi, BEZaren igoera gehitu behar zaio.

Hilaren lehen egunetik, guztion poltsikoetan eragina du. Garestiagoa da autoaren depositua betetzea, eskolako edota bulegoetako materiala erostea, ileapaindegira edota albaitariarengana joatea, loreak, arropa, autoak edota etxe tresnak erostea, zinemara edota kiroldegira joatea,...

Telefonoa, argia, gasa, ura edota internet zerbitzuetan ere, BEZaren igoera igarriko da, eta irailero fakturak garestiagoak izango dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko familietan. Oraindik kalean jendeak ez du gehiegi igerri BEZa igo denik, baina kezka eta haserrea nabariak dira.

Sektore batetik bestera zeharkako zergaren hazkundea ezberdina izango da. BEZ moten artean, supermurriztua (%4), murriztua (%8tik %10era igo da) eta arrunta (18tik 21era igo da) daude. Sektore batzuetan, hau da, eskolako materialaren kasuan, supermurriztutik arruntera igo da. Murriztutik arruntera igoera, ordea, ileapaindegiek, albaitariak, lore dendek, ehorzketa etxeek, zinemak, kiroldegiek... izan dute.

Egoera honen aurrean herritar batek baino gehiagok aprobetxatu du alde aurretik erosketak egiteko. Esaterako, irailean sartu

aurreko egunetan ezohiko jende kopurua nabari zuten Tolosako gasolindegian, azaldu dutenez. Auto gidari askok depositua betetzea erabaki zuten. Tolosako Babel liburutegian ere uztailetik nabari dute mugimendua, eta herritarrek alde aurretik egin dituzte erosketak. Autoa, arropa, eskolako materiala edota tabakoa.

Gastuak murriztu beharrean dauden familiak daude, eta horien artean, kiroldegian baja ematea dator. Irailaren hasierarekin batera Usabal kiroldegian nabaritu dute eragina, eta erabil-tzaile batzuek kuota ez berritzea erabaki dute.

Denda erdietan igoerarik ez


Igoeraren aurrean, Tolosa&Co elkartek hainbat bilera egin ditu. Komertzio asko eta era askotakoak biltzen direnez, erabaki bateratua hartzea ia ezinezkoa suertatu zitzaion. Hala, herriko dendek erdiek, norbere erabakiz, BEZaren igoera euren esku hartu eta ez aplikatzea erabaki du, urtarrila bitartean behintzat, eta horren berri eman dute erakuslelhoetan kartelak jarri. Oinetako dendetako jabeak izan dira bat egin, eta erabaki bateratua adostu dutenak. Horiek ere igoerarik ez dute aplikatuko, eta euren gain hartuko dute. Atzo oinetako denda guztietako ordezkariak Tolosako udalaxearen aurrean elkar-tu ziren honen berri emateko. Oinetako denda guztiek kartel bera zintzilikatu dute euren dendetan, herritarrei euren erabakiaren berri emateko.



Eskolako materiala da familia askoren poltsikoan nabaritu den igoeretako bat. A. MAIZ



Tolosako oinetako dendetako ordezkari guztiek bat egin dute; BEZaren igoera euren gain hartuko dute. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ **Inkesta****Egun gutxi pasa dira BEZaren igoera indarrean dagoenetik. Eraginik nabaritu ahal duzu?****Joxe Lasa**

«Oraindik ez dut gehiegi nabaritu, eguneroko ohiko erosketetan ez baita igoerarik izan. Ezin dezaket esan beldurra sentitzen dudunik, baina, errespetua aldez, bai. Ez dut uste neurri hauek ezer konpontzen dutenik, jendeak gutxiago erosiko baitu, eta horrek ondorio txarra izango du».

**Luis Mendia**

«Gauza ia guztietan nabaritu dela edo nabaritutako dela uste dut. Orain erosketak egitera joaterakoan lehen baino diru gehiago beharko da. Bankutik ateratako diruarekin lehen hauek ezer konpontzen dutenik, gaur egun bost egun baino ez dituzu egiten. Beraz, gehiago begiratu behar dugu».

**Pako Mendizabal**

«Oraindik agian ez, baina, laster igoko dituzte prezioak, beraz, txikiteoan-eta gabiltzanean nabaritu egingo dugu. Beraz, gutxiago hartu beharko ditugu. Horretaz gain, gainerako gauzetan nahiz fakturretan ere nabaritutako dugu igoera. Aurrerantzean, erosketak egitean tentuz ibili beharko da».

**Maria Jesus Urtxipia**

«Beldur edo kezka handia sentitzen dut. Pentsiotik bizi naiz ni, eta oraindik prezioen igoera gehiegi nabaritu ez dudan arren, askoz gehiago begiratu beharko dut erosketak egitean. Nire familia eta inguruan ez dut inor langabezian, baina, pentsatzen dut horiek izango direla okerren pasako dutenak».

Ander Arrieta • Albaitaria**«Animalien osasuna luxua izatera pasa da»**

BEZ murriztua zuen abuztura arte albaitaritzaren zerbitzuak, baina irailaren 1etik aurrera tasa orokorrera pasa da, eta ondorioz, %8 izatetik, %21 izatera igaro da. Albaitaritzarekin bezala, zinema, zuzeneko ikuskizunak, ile apaindegia, hileta zerbitzuak, gimnasioak edota lore dendak BEZ zerga %21 izatera igaro dira. Ibaiondo albaitari klinikako Ander Arrieta albaitariaren arabera, BEZ igotzeko neurria «ez da bate-egokia». Dena den, animalien osasuna «oinarrikoa» denez, ez dela gehiegi nabaritutako uste du.

Nolako eragina izan du zure sektorean BEZaren igoerak?

Eragina handia da, izan ere, prezioek %13 egin dute gora gure arloan. Agian, gure zerbitzuek oso prezio handia ez dutenez, ez da hainbeste nabaritutako, baina, guztia hartu behar da kontuan. Izan ere, bost euro gehiago hemendik, bost gehiago handik, eta beste bost beste hartatik, hilaeren bukarerako kopurua handitu egiten da. Etxetresnetan edo autoetan, esaterako, igoera oso nabaria da, prezio altuen gainean egiten delako.

Zuenera datorren jendeak galdetzen al du prezioen igoeraren gainean?

Egia esan, ez du jende asko galdetu, baina, oro har kezka nabari da.

Albaitaritzaren kasuan igoera sekulakoa izan da, murriztu izatetik, tasa orokorrera pasa baitute.

Guztekin neurria oso txarra da, jendeak gehiago ordaindu beharko baitu gure zerbitzuengatik. Al-



E. MAIZ

baitaritzaren zerbitzua luxu izaera edukitzeraz igaro da BEZaren igoera honekin. Guretzat, ordea, animalien osasuna ez da luxua, oinarrikoa baizik, eta zaindu egin behar da, pertsonen osasuna zaintzen den bezala. Gainera, osasun publikoa dela ere esan daiteke, txakurrak edota katuak gure inguruan, kaleetan, baitaude. Gure kasuan, beraz, min handiena eman diguna hori izan da, gauza eta zerbitzu arrunt edo oinarriko askok zuten %8ko maila horretatik, %21era igotzea, elementu orokorren mailara, hain zuzen ere.

Nola hartu du jendeak BEZaren igoera?

Jendeak ez ditu berdin hartzen horrelako igoerak gaur egun edo duela bost urte. Egoera hobea zenean errazago hartzen dira. Gaur egun, baina, jendea gehiago kezkatzen da, eta gehiago begiratzen du.

Mari Jose Agirre • Lorezaina**«Aurrera egin nahi badugu, ezin dugu BEZa igo»**

Lore dendetako produktuak ere BEZ murriztua izatetik tasa orokorrera pasa dira. Casa Arregui lore dendako Mari Jose Agirrek dioenez, «oso kaltegarria» izango da BEZaren igoera, «gizartea geldiaraziko baitu».

Nolako eragina izan du zuenean BEZaren igoerak?

Oso eragin handia, eta kaltegarria. %8tik %21era igotzeak esan nahi du irabazten duzunaren ia laurdena dela BEZa. Eta ez hori bakarrik, guztia igo baitzaizu, argierik fakturatik hasita. Beraz, pentsa zer den gaur egun gurea bezalako negozio bat aurrera ateratzea.

Igoeraren aurrean zer?

Guk behintzat, ahal dugunera arte, lehen genituen prezioak mantenduko ditugu. Honetan jarraitu nahi badugu, hori egin behar dugu, bestela ilun ageri da etorkizuna. Irabaziak gutxiago izango direla badakigu, baina ezin dugu besterik egin.

Nola nabari duzu gizartea salneurrien igoeraren aurrean?

Jendea ikaraz dago, kezkatuta. Askok galdetzen dute ea prezioak igo egingo diren. Guk erantzuten diegu gure bezeroek ez dutela igoerarik nabaritutako oraingoz. Baina, egoera oso txarra da. Pasa den urteko abuztura, esaterako, oso ondo saldu genuen, eta aurtengoa beharakada handia nabaritu dugu. Honek guztiak gizartea geldiaraziko du, langabezia igo eta ezkutuko ekonomia areagotu egingo baitu.

Ana Jubine • Babel liburudenda**«Ikasturtea hasi aurretik erosi dute materiala»**

Ikasleak dituzten etxe askotako buruhaustea izango da ikasturte honen hasiera. Seme-alabak dituztenek nahitaez erosi behar dute eskolako materiala, eta irailetik aurrera indarrean den BEZaren igoerak bete-betearen eragin du sektore honetan, espero ez zen moduan, gainera. Igoerarik handiena izan duen sektorea delarik. Testu liburuek ez dute igoerarik izango, baina motxila, karpeta, arkatza, axota, koaderno, agenda,... guztiek igoera handia jasango dute, %4tik %21erainokoa, hain zuzen.

Nabaritu duzue BEZaren igoera indarrean jarri dela?

Beste urteetan, guraso asko ikasturtea hasi eta gero etortzen ziren materiala erostera, baina aurrean gehienek ikasturtea hasi aurretik erosi nahi izan dute.

Jendeak materiala erosi aurretik galdetzen du?

Jendea beldurtuta dagoela nabari da, eta asko galdetzen dute BEZaren inguruan. Baina, nahitaez erosi behar diren gauzak direnez, ba gurasoek erosi egiten dituzte. Agian prezioei gehiago begiratzen dietela esan daiteke, modu egokienean dagoen materiala erosten dutelako. Hala, esaterako, gauzak banaka erosi ordez, sortak erosten dituzte. Martxo ingurutik edo hasi gara nabaritzen prezioari gehiago begiratzen zaiola.

Nolatan martxotik?

Jaunartzeetarako-eta erosten da material asko, eta aurrean jaitziera nabarmena izan dugula esango nuke. Jendeak asko begiratu du



E. MAIZ

erosi aurretik, eta erosi duenean kantitatez gutxiago izan da.

Merkatarik guztiek ez dute BEZaren igoera indarrean jarri. Zuenera materiala erostera datorrenak zein prezioekin egingo du topo?

Guk zera azaltzen diegu, dendan uneotan dagoen materialaren prezioa pasa den hilabeteko bera dela, hau da, ez dugula igo. Izan ere, material hori igoeraren aurretik zegoen eskatuta. Material berriaren eskaera egiten dugunean, orduan bai aplikatuko zaiola igoera dugun materialari. Ehuneko 21eraino igoko da materialaren BEZ zerga.



Nalamos etorb. 13 behean - TOLOSA
Mag. 678 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

Usabaldik Mallorcara, Erriberatik

Beste hiru argazki HITZAren lehiaketan parte hartzeko; Usabal kiroldegian, Mallorcan eta Murchanten ateratakoak

Erredakzioa

XVI. Argazki Lehiaketan, aurrekoetan bezala, hainbat lekutako argazkiak ari dira parte hartzen. Horietako bat Tolosan bertan ateratakoa. Mohamed Laminek azaldu duenez, «Usabalgo igerilekuan igaro ditugu udako egun gehienak. Uretan igerian nahiz jolasean, edota futboleko jokatzeko. Primeran igaro dugu».

Itsaso Barrenetxea Mallorcan izan da eta bertako Es-Trenc itsasartean atera du argazkia. Xabier Izagirre tolosarra Erriberan izan da, eta bertan igaro ditu abuztuaren egun batzuk: «Herri askotan festak izaten dira abuztuaren, eta guztietan, herri txikiak badira ere, protagonista zezena izaten da. Argazkikoa Murchanten atera genuen. Horrelako animaliak gertutik ikustea oso berezia da».



Mallorcako Es-Trenc itsasartean ateratako argazkia. ITSASO BARRENETXEA



Usabalen baloiarekin jolasten. MOHAMED LAMIN



Murchante herrian ateratako argazkia. XABIER IZAGIRRE



XVI. HITZA Udako argazki lehiaketa

Bidali zure argazkia
thargazkiak@hitza.info
helbidera!

Parte hartzaileen eta bozka ematen dutenen artean, HITZAKo materiala zozkatuko dugu.

Sari mundialak!

1.Saria:
Elantxobeko Ogoño Mendi landetxean, bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia.
Bermokiz,6 - 48310 (ELANTXOBE) Tel.: 657 716 648

2.Saria:
Tolosako Photokaferen eskutik, argazki-album analogikoa.
www.ardanazestudioa.com

3.Saria:
Tolosako Orue erretegiaren, bi pertsonentzako otordua.
Samaniegi kalea, 3-Tel.: 943 65 19 11 - 20400 (TOLOSA)

Txanda irabazteko uretaratuko da Getaria-Tolosako nesken ontzia

Denboraldiko sasoi punturik onenean daudela azpimarratu du Anjel Larrañaga entrenatzaileak

Itzea Urkizu Tolosa

Kontxako Banderarako bigarren jardunaldia irabazteko jomuga-rekin joango dira Donostiara, igande honetan, Getaria-Tolosako emakumeak.

Bederatzi segundoko altxorra eskuratu zuten Rianxeirako galiziarrek lehen jardunaldian, eta bosgarrenez, banderarik preziatuena hara begira dago.

Galiziarrek baino segundo bat

lehenago iritsi ziren balizara tolosar eta getariarrek; zibogako maniobran, ordea, arazoren bat izan zuten olatuarekin. Galiziarrek, gainera, poparean luze ikusgarria burutu zuten, estropada eremuko errekorra eginez (10:35.64). Gertaera batek zein besteak, bi taldeen arteko aldea handitzea ekarri zuen, eta Larrañagaren iritziz, «aldeak ez ziren bidezkoegiak izan».

Bederatzi segundoko aldea ahaztuta, eta denboraldiko sasoi-punturik onenean daudela nabarmenduz, 2.778 metroko ibilbidean beste hiru traineruak mendean hartzen saiatuko dira igandean, 11:00etan, Getaria-Tolosako emakumeak.

● tolosa@hitza.info



Bigarren postua lortu zuten, Getaria-Tolosak, pasa den igandean. HITZA

Anjel Larrañaga • Getaria-Tolosa traineruko entrenatzailea

«Zumaiak bere betiko maila eman zuten, denborei begiratzuz gero»

I. Urkizu

Getaria-Tolosa traineruko entrenatzaile Anjel Larrañagak argi azaldu du igande honetan lortu nahi dutena: txanda irabaztea.

Bederatzi segundoko daude galiziarren eta zuten artean. Zein helbururik ukeratuko dira neskek igandean? Gure helburu nagusia txanda bera irabaztea izango da. Joan den astean zibogara egin genuen akats hari ea buelta ematen diogun, eta galiziarrek mendean hartzen ditugun.

Zibogagakoa izan al zen igandean? Galiziarrek txanda irabazteko gakoa ez zen izan, baina behar bada guk hainbeste segundo galtzearen gakoa bai. Galiziarrek sekulako estropada egin zuten, eta norbere burua aurretik ikustean, betiere errazagoa izaten da arraunkera erosoago eta sendoago hartzea. Hala ere, maniobran ondoren Rianxeirako neskei

opari handi samarra egin geniela iruditzen zait, eta behar bada aldeak ez zirela bidezkoegiak izan.

Denboraldiari begira, zumaierrek maila hobea ematea espero zenuen?

Jende asko hori esaten ari da. Guk egin dugun irakurketa, ordea, bestelakoa da. Zumaiak bere betiko maila eman zuten, denborei begiratzuz gero. Akaso ez zuten espero, ez galiziarrek eta ezta guk geuk ere, maila hori ematea. Bai Rianxeirakoak eta bai gu, aurten grestakuntzan nahiko berandu ibili gara, eta gure mailarik onena iristear zegoen. Guk hobekuntza nabaritu genuen Euskadiko Txapelketan, eta galiziarrek ere, Zarauzko estropadan gauzak estu jarri zizkieten. Baina pasa den igandean, kale onenetik airtuta ere, ez ziren gu eta galiziarrek menderatzeko gai izan.

Bosgarren emakumezkoen Kontxako bandera, bosgarrenez Galiziar

bidean doa. Aurten, bereziki, hizpide izan da Rianxeirakoen selekzio zaezara. Zuk zein iritzi duzu?

Garbi esan nahi dut, neska galiziarrek hemengo estropadak gipuzkoarrei esker jokatzen dituztela. Gipuzkoan emakumezkoen sei ontzi osatzen ditugu, eta sei ontzi hauek ematen dute aukera, Gipuzkoako Liga jokatzeke, Euskotren Liga jokatzeke eta Kontxako Bandera jokatzeke. Galiziarrek, ordea, ontzi bakarra osatzen dute, eta ez neska galiziarren selekzioarekin bakarrik; Galiziaren izenean etortzen dira, baina Espainia osoko emakumeak fitxatzen dituzte trainerurako.

Emakumezkoen arrauna sustatze horretan honek zer eragin du zure ustez?

Inongo mesederik ez dio egiten. Kontxako bandera sari handia da, eta guztion nahia ere bai. Baina emakumezkoen arraunari begira, okerreko erabakia iruditzen

zait galiziarrena. Herrietako ontzi eta talde txiki horiek guztiak desagertaraztea lortzen da horrelako gauzekin. Pentsa, Gipuzkoan adibidez, Getariako bi neska, Orioko bi, Zumaiako lau eta abar aukeratzen hasiko bagina; talde bakarra aterako litzateke, eta Gipuzkoako taldeek ezingo lukete parte hartu.

→ Laburrak

Ezker abertzalearen batzarra, gaur

POLITIKA › Gaur, Tolosako ezker abertzalearen batzarra izango da, 20:00etan, Antonio Maria Labaien kultur etxean. Antolatzailerik bilerak garrantzitsua izango dela nabarmendu dute, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoan datorren urrian izango diren hauteskudeez eta egoera politikoaz ariko baitira.

Udaberri dantza taldean izena emateko aukera

KULTURA › Gaur eta bihar, Udaberri dantza taldeko ikastarotetan izena emateko azken aukera izango da. Taldeko kideak, 16:00etatik 20:00etara bitarte, kultur etxean izango dira, izen-emate mahaian, eta 3 urtetik 15 urtera bitarteko haur eta gazte-txoekek izango dute euskal dantza tradizionala ezagutzeko aukera. Era berean, www.udaberri.com webgunean ere eman ahal izango da izena.

Izaskungo danborradako azken entsegua, gaur

GIZARTEA › Bihar hasiko dira Tolosako Izaskun auzoko jaia, eta urteroko moduan, danborradak emango die hasiera jaiak. Bertan parte hartzeko izena emana dutenek, gaur izango dute azken entsegua, Bonberenean. 19:30ean elkartuko dira, eta Bonberenea Txarangarekin egingo dute saioa. Danborrada 22:45ean hasiko da bihar.

Talleres
ARRASTOA S.L.
Jai zoriontsuak izan!
Ernio bidea, 25 Poligonoa, 35 Pabilioa
Posta kutxa 61
ZIZURKIL
Tel.: 943 69 44 41
Fax.: 943 69 41 02

Ondo pasa jaietan!
EDARITEGIA
Egarrri
ERNIOBIDEA, 7 ZIZURKIL Tel.: 943 69 62 57

Bertako informazioari bertako produktuk
Egin HITZaren harpidedun irailaren 3tik urriaren 26ra eta jaso artzai gazta, Idiazabal jatortri izenarekin, **OPARI**
Hitzaren harpidedunen artean, bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia zozkatuko dugu
Hizkuntza: hizkuntza@hitza.info
943 82 02 01
hitza info
Artizano nekazalariak
Zimarga, 46
HONDARRIBA (Gipuzkoa)
Tel: 943 642 337 / 655 721 834
www.rekatur.net/artizano

Ordizian hirugarren saria jaso du Dani Oiarzabalek

Fruitu eta barazki lehiaketako hirugarren saria jaso du anoetarrak; eskualdeko lau nekazarik aipamen berezia jaso dute

A. Imaz

Euskal Jaietako azoka berezia ospatu zen atzo Ordizian, 500. urtez. Gazta lehiaketa izaten da eguneko ekitaldi nagusia, eta atzokoan ere horrela izan zen. Eskualdeko nekazariak, ordea, euren protagonismoa Fruitu eta Barazki Lehiaketan lortzen dute. Aurten, Anoetako Dani Oiarzabal nabarmendu

da, hirugarren postua eskuratu. Lehen hiru postuetatik at gelditu diren arren, eskualdeko beste hainbat nekazarik aipamen bereziak jaso dituzte, hain zuzen ere, Berrobiko Barazki Bizidunak; Baliarraingo Maria Jesus Mujikak eta Edurne Jauregik, eta Ibarako Montes Etxeak.

Fruitu eta Barazki Lehiaketako irabazlea Jose Manuel Zabale-



Ordiziako Euskal Jaietako atzoko azoka bereziaren une bat. ARKAITZ APALATEGI / GOIERRIKO HITZA

gi izan zen, Martuteneko Olatzo baserriko nekazaria. Bigarren postuan Elgoibarko Peio Rubio gelditu zen. Gazta lehiaketari dagokionez, Jon Etxeberria zeaurritarrak irabazi zuen aurtengo gazta txapelketa. Bigarren saria

iazko txapelkunarentzat izan zen, Rikardo Remiro Eulateko artzainarentzat; eta hirugarren postua, La Lezea arabarrari egokitu zitzaion. Guztira, 53 gazta aurkeztu ziren Ordiziako lehiaketara. Aipatu, gazta irabazlearen erdia,

Catalana Occidente aseguru etxeak erosi zuela 7.400 euro ordainduta. Urtero gazta txapelkunaren erdia enkantean saltzen da, eta trukean dirutza ordaintzen da. Iaz Bilboko Porrue jatetxeak 7.300 euro ordaindu zituen.

Kultur etxeko tailerretan izena emateko aukera

A. Imaz Tolosa

2012-2013 ikasturteko Tolosako kultur etxeko tailerren eskaintza prest da jadanik. Izena emateko hiru aukera jarri dituzte: kultur etxean edo 943 67 03 83 zenbakira deituta, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etarako ordutegian; matrikula orria ondorengo helbide elektronikora bidaliz, kultura@tolosakoudala.net-era, edo www.tlsbat.net helbidea bisitatuz.

Iazko ikasleen matrikula epea

iraailaren 10etik 14ra zabalduko da. Epe horretan lekua erreserbatuko zaie, baina epe horretatik kanpo ikasle berrien eskubideak izango dituzte.

Ikasle berrientzako epea iraailaren 17tik 21erakoa izango da. Taldeetan geratu diren lekuen arabera eskaintza egongo da. Eskae-rak lekuak baino gehiago direnean, interesatuen zerrendak osatuko dira, eta matrikula eskubidea zozketa bidez erabakiko da. Kasu hauetan epea beste astebete luzatuko da.

‘Bihotza Zaindu’ kanpaina abian da

A. Imaz Tolosa

Tolosako Asuncion Klinikak *Bihotza Zaindu* kanpaina abian jarri du. Janari kardio-osasuntsua prestatzen ikasteko kurso bat, sare sozialetan lehiaketak eta hilaren 25ean, Andoaingo Bastero zentroan, Cristian Tiano kardiologoaren hitzaldi bat antolatatu ditu ekimenaren barruan, besteak beste.

Sukaldaritza ikastaroa Roberto Ruiz sukaldariak eskainiko du, hilaren 27an eta urriaren 10ean.

Honekin batera, Asuncion Klinikaren Facebook orrian argazki lehiaketa jarri dute martxan. Erabiltzaileek, bihotz baten itxura duen edozein objekturen argazkiak igo beharko dituzte orrira, eta boto gehien jasotzen dituenak sukaldaritza kardio-osasuntsu kurtsoa dohainik egiteko aukera eta Fronton jatetxean bi pertsonentzako afaria irabaziko ditu.

Informazio gehiago, www.clinicadelaasuncion.com webgunean edo [facebook/clinicadelaasuncion](https://www.facebook.com/clinicadelaasuncion) orrian zintzilikatu dute.

‘Gazta zati bat’ dokumentala ikusteko aukera Asteasun

A. Imaz Asteasu

Jon Maiak zuzendutako *Gazta zati bat* dokumentala kalean ikusteko aukera egongo da Asteasun, bihar, 21:30ean. Ebia kultur taldeak antolatu du ekimena, eta dokumentala herriko plazan jarriko dute ikusgai. Ebiatik herritar guztiak herriko plazara gonbidatu dituzte, hain arrakastatsua bilakatu den dokumentala ikustera.

berria bekak 2012

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **8 zortzi beka,** horietako bat bideo informatiboak lantzeko

EZAUGARRIAK:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, irailetik ekainera
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietzan

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beke bat**

EZAUGARRIAK:

- Hamabi hilabeteko iraupena, irailetik irailera
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian

Eskualdeko herri kirolariak Zazpi herrialdeen arteko txapelaren bila aterako dira

Euskal Herriko Gizonezkoetan Txing Txapelketa jokatu da Leitzan, igandean, 12:00etatik aurrera

Asier Imaz

Gipuzkoako eta Nafarroa Garaiko taldeak eskualdeko hamaika herri kirolariz osaturik joango dira Algortara, etzi. Intxaurte kirolgunean, metro estazioaren ondoan, XXIV. Zazpi herrialdeen arteko txapelketa jokatu da 17:00etatik aurrera. Zazpi taldeen aurkezpen ekitaldia 16:45ean hasiko da.

Gipuzkoako taldean Ibarra Sokatira Taldea, Jokin Garmendia eta Unai Iraola egongo dira. Baliarraindara eta ikaztegiatar trontzan ariko dira.

Nafarroa Garaiko taldean bi leitzar ariko dira lanean; ingudea altxatzen Josetxo Urrutia eta orga jokoan Lazaro Bujan.

Azken urteetako palmaresa begiratuz gero, bi lurralde hauen artean egongo da txapela, izan ere, iaz, Gipuzkoak Nafarroa Garaiko taldearen nagusitasuna hautsi zuen, zazpi urteko garaipen kateari amaiera jarriaz.

Ohi bezala, hamar kirolatan lehiatuko dira herrialdeetako kirolariak: lokotx-biltzea, zaku-eramate lasterketa, sokatira goma gainean (ligaxka), txinga-eroatea, lasto-jasotzea, ingude-jasotzea, harri-jasotzea, orga jokoak, trontza eta aizkoran.

Herrialde txapeldunak, urteko txapelketa irabazteagatik kopa, txapela eta urrezko dominak jasoko ditu. Bigarren eta hirugarren sailkatuek, berriz, zilarrezko eta brontzezko dominak. Gainera,

herrialde bakoitzak herrialde antolatzaileak eskaintzen duen oroigarria jasoko du. Horiez gain, kirol bakoitzeko garaileak edo garaileek txapela jantziko dute.

Txinga txapelketa, Leitzan

Euskal Herriko Gizonezkoen Txing Txapelketa jokatu da hilaren 9an, igandean, Leitzan. Plazan sei txinga eroale ariko dira lehiari, 12:00etatik aurrera: Ker-man Perez de Heredia (Araba), Oscar Perez (Bizkaia), Ousmane Drame (Bizkaia), Juan Jose Agirregabiria (Gipuzkoa), Fran Etxeberria (Nafarroa) eta Adrian Bermejo (Nafarroa).

Txapelketa honekin batera, aizkora erakustaldia egongo da. Sei aizkolarik gazte ariko dira lanean, Eneko Saralegi, Ruben Saralegi, Arkaitz Olano, Julen Olano eta Mikel Zabaleta leitzarrak, eta Asier Pellejero aresoarra.

Behar Zanako pilota eskolako taldeak antolatuko dituzte, gaur

Amasa-Villabonako kirol elkarteak argazki lehiaketa antolatu du; 'Errebotea' izango da jorratu beharreko gaia

A. Imaz Amasa-Villabona

Behar Zana kirol elkarteak pilota eskolako taldeak gaur egingo dituzte elkartearen izena daraman frontoian, 17:30ean. Behar Zana kideak Villabonako haurren gurasoengana zuzendu dira: «Behar seme-alabak gure pilota eskolan ikastea nahi duten gurasoak animatu nahi ditugu bertaratzea, aipatutako orduan».

Bestalde, Enrique Abril Errebote Txapelketaren 49. edizioko partida jokatu du Behar Zanak hilaren 9an, Villabonan, 11:00etatik aurrera. Etxeko taldearen aurkaria Luzaz Gazte izango da.

Gabonetako errifak

Gabonetako errifei dagokienez, Behar Zana Elkartetik bazkide guztiei oharra zabaldu die: «Erri-fen gutunazala zuegan ailegatzeko ezinbestekoa izango da norberaren helbidea ondo adieraztea. Norbait helbidez edota kontu korrontez aldatu baldin bada,

ahalik eta azkarren elkartean azaltzea eskertuko genioke». Bi aukera jarri dituzte horretarako, alde batetik, elkarteak postontzian sartu beharko dira datu guztiak, edota helbide elektroniko honetara bidali beharko dira: beharzana@gmail.com.

Argazki lehiaketa

Villabonako kirol elkartetik, azkenik, Behar Zana Argazki Lehiaketa 2012-ren berri eman dute. Gaia *Errebotea* izango da, eta parte hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkezteko aukera izango du. Horrez gain, argazki bakoitzari izenburua jarri beharko zaio. Izen-abizenak eta telefonoa argi eta garbi aipatu beharko direla ere azaldu dute Behar Zanatik, lehiaketan parte hartzeke. Argazkiak aurkezteko epea urriaren 14ean amaituko da, eta beharzana@gmail.com helbidera bidali beharko dira erreboteari buruzko argazkiak. Lehiaketan parte hartzen duten argazkilarien lan guztiak elkarteak Facebook-ean jarriko dira ikusgai. Argazkiri onenek saria edukiko dute, hau da, irabazleak bi lagunentzako afariatzeko aukera edukiko du Bodegon Benta Aldean. Herri-tar guztiak gonbidatu dituzte lehiaketan parte hartzera.

Laskorainek eta Ibarrak Salouren aurka jokatu dute asteburuan

A. Imaz

Salou areto futbol taldeak aurre denboraldia Tolosan egitea erabaki du. Hirugarren mailan jokatzen dute kataluniarrek, eta maila berean aurkitzen diren eskualdeko bi talderen aurka lehiatuko dira asteburuan.

Laskorain KE-ren aurka hilaren 8an, etzi, jokatu dute Usabal kiroldegian, 17:00etan. Hurrengo egunean, leku berean, Ibarra FS taldea izango dute aurkari Salou areto futbol taldeko kideek. Partida horri 11:00etan emango diote hasiera.

Kataluniarrek esker oneko hi-



Salou areto futbol taldea Tolosara etorriko da. HITZA

tzak izan dituzte eskualdeko bi taldeentzat, hauen maila goraipatzearekin batera. Horrez gain, herri-tarrei Usabal kiroldegira ager-

tzea eskatu die, denboraldi aurreko partida bikainak ikusteko aukera izango baita bertan, punta puntako jokalarien eskutik.

→ Laburrak

Euskal Jaia antolatzeko bilera gaur, 19:00etan

ANOETA › Euskal Jaia antolatzeko bilera gaur egingo dute Anoetan. Udalak azaldu duenez, batzarra 19:00etan izango da, eta udaletxean elkartuko dira herritarrekin. Bilerara azal-tzea eskatu die eragile eta herri-tarrei.

Aizkardiren bi eguneko irteera, Pirinioetara

VILLABONA › Aizkardik asteburu-ko irteera antolatu du hilaren 15erako eta 16rako, Pirinioetan barrena. Besteak beste, La Soule, Bachimala eta Aygües Tortes igoko dituzte. Izena emateko 649 71 71 82 zenbakira deitu behar da, 20:00etatik 22:00etara, edo elkartera joan behar da. Izena emateko azken eguna hilaren 7a, ostirala, izango da. Olaederratik irtenko dira hilaren 15ean, 05:30ean.

Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

ASUN ESTOMBA BARDECI

(Bai Harbe Tolosako Aikatasaren armona)

Izan zirelako gara, garelako izango dira.

bidu

Tolosan, 370ko irailaren 6an



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta/Aldea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza/Aldea: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaundi
euskara
taldea



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zailtanzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

DEIALDIAK

- **Anoeta.** Euskal Jaia antolatzeke bilera egingo dute udal-txean, 19:00etan.
- **Tolosa.** DYA elkarteak Osasuna eta Istripuen Prebentzioarako Astea antolatu du aste honetarako. Gaur, 19:00etatik 21:00etara, bihotz-biriken suspertzeari buruzko tailerra izango da Larramendi kalean dagoen egoitzan. Izena emateko irakaskuntza.eskola@DYA.gipuzkoa.com helbidera idatzi edo 943 46 46 22 zenbakira deitu behar da.
- **Tolosa.** Izaskungo danborra-

dako azken entsegua, Bonberenean. 19:30ean elkartuko dira, eta Bonberenea Txarangarekin egingo dute saioa.

- **Tolosa.** Ezker abertzaleak batzarra antolatu du, 20:00etan, kultur etxean. Batzar horretan egoera politikoaz eta EAeko hauteskundeez ariko dira.
- **Tolosa.** Gaur eta bihar, 16:00etatik 20:00etara, kultur etxean izango dira Udaberri Dantza Taldeko kideak haurren ikastaroetako izen-emateak jasotzeko. 3 eta 15 urte bitartean dituztenek eta dantza tradizionala ikasi nahi dutenek dute izena emateko aukera.

Agurrak



URTE ASKOANI

Peru Cestau (Aduna). Gaur 4 urte. Zorionak eta muxuak Joanes eta gurasoen partetik.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia: Bengoe-txea, E; Kale Nagusia, 7; 943 67 06 48. Gauekoa: Azpiroz, Lourdes.; Amaroaz auzunea, 9; 943 67 51 18.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



URTE ASKOANI

Zazpi urte gaur Asierrek, pasa den abuztuaren 16an Elurrek bost bete zituen. Zorionak eta bina muxu bioi etxekeko partetik.

Irudia Tolosa



ARANZABE, EPAILE NAGUSI CAMBADOSEN

Juan Bautista Aranzabe *Mate* tolosarrak (argazkian, erdian, kamiseta txuriarekin) bigarren aldiz zuzendu du xakeko epaile gisa XXVIII. Nazioarteko Albariño Torneoa. Cambados (Galizia) herrian egiten da txapelketa, abuztuaren, eta hainbat he-

rrialdeetako xake jokalariek parte hartu dute. Hain zuzen ere, aurreko bi egunetan da Galizian epaile gisa aritzen dela tolosarra. Aranzabek 24 urte daramatza nazioarte mailako epaile gisa, Salonicako Xake Olimpiada Jokoetan izendapena jaso ondoren. HITZA



URTE ASKOANI

Dolores Artola Artola (Lizartza). Gaur 86 urte. Zorionak eta urte askotarako bihotz-bihotzez. Seme-alaba, sui-errain eta biloben partetik, baita ere denoi ematen ari zaren guztiarengatik ESKERRIK ASKO.